

Buruketak

Anek bost pizza zortziren jan zituen, eta Uxuak, pizzaren gainerakoa. Nork jan zuen pizza gehien?

Edurnek apartamentu bat 20 egunerako alokatu, eta 640 € ordaindu zuen. Horrez gain, 30 € gastatu zituen egunero jaten. Zenbat gastatu zuen guztira egun bakoitzean?

Imanol 1 m eta 68 cm luze zen duela bi urte. Iaz, 6 cm hazi zen; aurten, berriz, 9 cm hazi da. Zenbat luze da orain Imanol?

Mirenek 6 km egiten ditu egunero bizikletaz. Gaur 5.100 m egin ditu jada. Zenbat metro falta zaizkio amaitzeko?